



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 6ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren seian arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IDIART Claudine

Saioko idazkaria: DACHAGUER Peio

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 2a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 2a

3. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO ANIMAZIO-LAGUNTZAILE BATEN BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.2.1 nomenklatura)

Auzapezak Herriko kontseiluari oroitarazi dio boluntario gazte batek zerbitzu hiritarra burutu duela Ortzaizeko eskola publikoan, haurren eta familien laguntzeko eginkizunarekin, 2024ko irailaren 2tik 2025eko ekainaren 1era.

Auzapezak zehaztu du zerbitzu hiritarra gehienez 9 hilabetekoa izan daitekeela eta eginkizuna segi dezan denbora ez osoko animazio-laguntzaile behin behineko enplegua sortzea proposatu du.

Enpleguak 2025eko ekainaren 2tik 30era iraunen du.

Asteko batezbesteko lanaldia 27 orenekoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikularen xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 401eko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2025eko ekainaren 2tik goiti, lurralde animazio-laguntzaile lanpostu iraunkor eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 27 orenekoa,

- enplegu horrek 401eko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 6an

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 12an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.